

aek

Esaera zaharren

29. TXAPELKETA SOPELAN
2024KO APIRILAREN 27AN



ESAEREN ZERRENDA

1. ABADERIK EZ DA JAUSTEN GAZTAINA GANETIK
2. ABERATS IZAITEA BAINO, OSPE ONA HOBEAGO
3. ADAUSI DEGIDALA, BAINA AUSIKI EZ NAZALA
4. ADIKATZEN DA EMAILEA, ETA EZ HARTZAILEA
5. ADINONA LARRA BAINO HOBE DA
6. ADISKIDE BERRI EGITEKO PRISARIK EZ, ARE GUTIAGO ZAHARREN UZTEKO
7. AGINDU BAJAKON, EZ ZAUEN EGINGO
8. AHARRAUSI USUA, GOSE EDO LO-MEZUA
9. AHOAN MIN DUENARI, EZTIA KARMIN
10. AITA-AMA HOBERENAK, BAKOITZARENAK
11. AITZAKIA BILA DABILENAK BETI AURKITZEN DU
12. AKATSIK GABEKO LAGUNA, AURKITU EZIN DUGUNA
13. ALDI JOANA EZ DA ITZULTZEN
14. ALPERRAK, NORBERA BE ALPERTU
15. ASKO DEZAKE ESKUAK, BAINO GEHIAGO BURUAK
16. ATSEGINA BIKUN DA, DENEAN LASTER EGINA
17. BAGO BOTAIAN, AISE EGITEN DA EGURRE
18. BAIGORRIKO BAXERA URREZ, HARAT ETA LURREZ
19. BAKERIK TXARRENA HOBIA, GERRARIK ONENA BANO
20. BESTEEN AHUNTZEK, ESNE ASKO
21. BI ESKEINTZIA ERREZAO, BAT EMATIA BAINO
22. BIBOA USTE, ETA BABOA IZAN
23. BURDI ZAHARRAK, ABERIXA ASKO
24. DABILENAK ZEOZER EKARTZEN DU ETXERA
25. DAGOENEAN PAR-PAR, EZ DAGOENEAN NEGAR
26. DAKIEN GUZTIA EZ DERRALA, AHALA ORO JAN EZ DEZALA
27. DANAK DAUKIE ZEOZE ONA
28. DANOK DAUKAU ZEOZEN FALTI
29. DIRU-SOINUA GORREK ERE ENTZUTEN
30. DOHAIN EMANA ZERBAIT HOBEREN ESKE DAGO
31. EGARRI EZ DEN ASTOARI ZEINEK EDANARAZI
32. ELEA ZILAR DELA, IXILTZEA URRE
33. ERORIZ ZAZPI ALDIZ IKASTEN DA ZALDIZ
34. ESANA HAIZEAK ERAMATEN DU; ESKRIBITUA HAN GELDITZEN DA, TXURIAN BELTZA
35. EUSKARAZ JAKIN, EGITEN DUENAK DAKI
36. FESTAK AURREA EDERRAGO DU ATZEA BAINO
37. FRUITUETARIK AGERI ARBOLA
38. GANIBET BER BATEK DEBAKA OGIA ETA ERIA
39. GITXI IKASIA, BETI JAKINTSU
40. GURASOAK BETIKO EZ DIRA
41. GUTXI ETA ONA, ESTIMATUAGO
42. HAMAR KILO GATZ JAN BEHAR DA, ELGAR EZAGUTZEKO

43. HILDA GERO, DANAK ONAK
44. HIRU BELARRITAN IGARAN HITZ ISILA, OROTAN LASTERKA DABILA
45. IKUSI NAHI EZ DU(N)ANA, BETI AURREAN
46. ITXAROPENA, POBREAREN OGIA
47. JAIKI ZEN NAGIA, ERRE ZUEN HIRIA
48. JAINKOAK EZ BADU NAHI, SAINDUAK AHAL GUTI
49. JOKARIA, BETI GALTZAILE
50. KANPOAN EDURRE, BOTA SURTERA EGURRE
51. LAGUNAK, INFERNUAN ERE GAUZA ONA
52. LAPIKO EZIN DANA, EZTALGI LITZATE
53. LEGE GUZTIAK BERE TRANPA
54. LURRETIK SORTHUAK, HARAT GOAZKE; LURRIK GABE, DEUS EZ GIRA
55. MEDIKU TXARRAK ETA ARNO ONAK ASKO HILTZEN DITUZTE
56. MENDIRA, OGIXE TA TXAMARRIE ERUEN
57. MENIAGATIK, IZKILURIK EZ ITZI
58. MILA URTE IGAROTA, URA BERE BIDEAN
59. NAHI DUNAK GEHIAGO EGITEN DU, AHAL DUENAK BAINO
60. NON ERROMERI, HAN SANTA MARI
61. NON ZALDARRA, HAN ATZAMARRA
62. NORI, NOLA MINTZA
63. NUN ENE XOKO, HAN ENE GOXO
64. OGIA LEHENAGO, ORA BAINO
65. OHEAK GAZTEA AZKARTZEN, ZAHARRA AHULTZEN
66. OKIN BERRIAK, BAHIA ZURI
67. ONHETS NEZAN TRONKOA, IDURI ZEKIDAN JAINKOA
68. PIXKE TA PIXKE, PUSKE
69. POLITIKA, GERLARIK GABE EGITEN DEN HILKETA
70. SAINDU-MAINA, OTSO HIZANA
71. SAINDU GUZIAK OLIOKOI
72. SALTSA HOBERENA GOSEA DA
73. SAN JUAN, NEKEZ ETORRI TA ARIN JUAN
74. SARTU EZ ETA KENDU, HORRELA EZIN MANTENDU
75. SEKULAN BAINO, NOIZBAIT HOBE
76. SEMERIK EZ DUGU ETA IZENA JARRI DIOGU
77. SUGEA HILGATIK, SUGAKUMEAK BIZI
78. TIPIAN IKUSIA, BETIKOTZ IKASIA
79. TONTOAK ZER DAKI EGITEN? ONTSA EGINAREN DESEGITEN
80. TRIPAK MUGIARAZTEN DITU HANKAK
81. TXIROAK, ARLOTEA HIGUIN
82. ULERLE ONARI, BERBA GITXI
83. UR HUTSAK, BIZIA LUZATU
84. URREA ESAN, TA URRIA EMAN
85. URRUN HELDUKO DA, BARATZ DOALARIK, GERATU GABE DOANA
86. UZTAILEAN, IGITAIA ESKUAN
87. XAHARRARI ESKER GUTI
88. XAPELIK HANDIENAK EZTU BURU HUTSIK BETETZEN
89. XERRIARI EMANA EZ DA GALDUA
90. XINAURRIEN GAINEAN JARTZEN BAZARE, EZ HARRI XISTATZEN BAZAITUZTE
91. ZAKUA, SOBERA BETHEZ, LEHERTZEN DA
92. ZIKIN NUEN ETXEA; BISITA NINDUN ALKATEAK
93. ZIRKO GUZIETAN, PAILAZOAK
94. ZORITXARRAK, IRAKASTEN; ZORIONAK, ERGELTZEN
95. ZOZO ASEAK, GINGAK HIGUIN
96. ZOZOAREN ABANTAILA DA BERE BURUAZ KONTENT IZAITEA
97. ZUHURRAREN OLIQA, KATUAK EDAN
98. ZUME HAUEKIN SASKI HAU BAINO EZIN DA EGIN
99. ZURETZAT ON EZ DENA, BESTEENTZAT EZ OPA
100. ZUZENTASUNA NAHI DUENA BERE ETXETIK HASI BEDI